

## Kattalin gorri

**ez zitzaien laket:** ez zitzaien gustatzen.

**isopa:** pintzela.

**Euliei:** uliei, uluei.

Duela aspaldi, nehor ez baita oroit ere noiz zen xuxen, intsektu guziak kolore berekoak ziren: kolore hitsa, lur kolore. Batere **ez zitzaien laket**, elkarretarik ezin bereziak zirelako.

Egun batez, lamina batek oihan eta pentzeetako intsektu guziak deitu zituen eta bere harpean bildu. Han, zilo hartan, baziren margo-  
5  
gotzeko gauza pollitak: **isopa** ttipi batzuk eta tinta guziak: gorria, horia, berdea...

Laminak intsektuei erran zien orduan:

– Margo horiekin soineko polit bat egingen diot bakoitzari. Zuek hautatuko dituzue margoak. Hola denek itxura desberdina izanen duzue.  
10


Intsektu guziek txalotu zuten lamina.

Lehenik xinaurria zen mintzatu:

– Nik soineko beltza nahi dut: ez da zikinkorra eta lanean aritzeko, soineko ederren beharrik ez dut.  
15

**Euliei** ere beltza ongi zitzaien; margo ederra zela zioten, andere plantakoek ibiltzeko modukoa.

– Nik ere soineko beltza nahi dut – segitu zuen kirkirrak. Ene buruaren agertzea ez dut maite eta gauaz ibiltzen bainaiz, soineko beltza arras gokia zait.  
20



Laminak, isopa ttipia harturik, xinaurriak, euliak eta kir-  
kirrak, beltzez beztitu zituen.

– Orain, mugitu gabe zaudete, ongi idortu arte ; gero,  
elkarrekin joanen zarete.

25 Gero erleen eta listafinen aldi izan zen : beltza ez zuten  
maite. Soineko hori eta marroia, marraduna, nahi zuten.

– Eta zuk, ttirritta ? Nolako soinekoa nahi duzu ?

– Nik hain maite dudan eguzkiaren itxurakoa nahi nuke.

**Otia** etorri zen gero :

30 – Nik margo bat baizik ez dut nahi : berdea ; pentzeetako bela-  
rraren kolorekoa.

Aski lan izan zuen laminak otiaren soinekoa egiten, beti jauzika  
ari baitzen, geldirik ezin egon...

35 Mari Burruntza zen beztitzeko zailena : soineko urdin-berdea hau-  
tatu zuen, zetazko hegal urdinekin. Laminak oso ongi apaindu  
zion.

Baina zer lana pinpirinak agertu zirelarik !

Soinekoak ez zituzten sekulan aski ederrak : lamina margo guzien  
baliatzera behartu zuten.

40 – Eta orain, bozik zarete ? – galdegin zien laminak.

– Bai, bai ! Oso desberdinak, oso ederrak gara orain.

Milesker ! – ihardetsi zuten intsektu guziek.

45 Orduan ohartu ziren heldu zela biribil-  
biribila, **hatsantua**, Kattalin Gorri. Bidean,  
galdurik ibilia zen eta azkenean **iritsi** zen  
laminaren harpe zilora.

– Eta nik ? Nik ere soineko berria nahi nuke...

– Nolakoa nahi duzu ? Kolore bat hauta ezazu.

– Soineko gorria nahi dut.

50 – Badut hemen gorri ederra zure soinekoaren egiteko.




Laminak, bere isopa ttipiarekin soineko gorri-gorria egin zion.

– Zein polita naizen orain ! Askok gustatzen zait – erran zuen  
Kattalin Gorrik – Milesker !

Orduan xinaurria hurbildu zen :

55 – Gaixoa ! Kolorea gaizki hautatu duzu ; berehala zikinduko da !  
So egizu...


Eta hori erran bezain laster hunkitu zuen soineko gorri polita bere  
aztapar beltzarekin. Baina haren aztaparra ez zen ongi idortua...



**Otia** : larrapotea.

**hatsantua** : hatsa kexatua,  
trabatua.

**iritsi** : heldu, arribatu.



– Zer egin duzu? – erran zion Kattalin Gorrik. Ene soineko berria! Tatxa bat egin diozu. Tatxa beltz bat!

Negarrez hasi zen Kattalin Gorri.

60

Xinaurria ere triste zen: **zazpi egin ahalak** egin zituen tatxa horren kentzeko baina debalde. Laminak erran zion:

– Zaude lasai, Kattalin Gorri, ez egin negarrik. Zure soinekoa arras polita izanen da. So egizu, beste ttitta ttipi batzuk eginen dizkiot han-hemenka.

65

Laminak isopa ttipiena hartu zuen eta margo beltza ere. Polliki-polliki, ttitta ttipi beltz zenbait egin zizkion bizkarrean, hainbestetaraino non Kattalin Gorriren soinekoa guziz ederra gelditu baitzen.



70

Haren lana bukatua zela, intsektu guziek lamina txalotu zuten. Kattalin Gorrik **malkoak** idortu zituen eta bere lagun xinaurriari barkatu zion. Geroztik beti soineko bera ibiltzen du.

Nathan argialetxeko *Le goût de lire* liburutik-egokitua.

**zazpi egin ahalak**: ahal guziak.

**malkoak**: negar xortak.



## 1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nolakoak ziren hasieran intsektuak ?
- Lamina zer da ?
- Zein intsektu tindatzen ditu laminak ?
- Tindatzeko zailenak zein dira ?
- Zergatik negarrez ari da Kattalin Gorri ?
- Kattalin Gorriren arropa biziki polita omen da. Nolakoa egin dio laminak ?

## 2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Hona intsektu-izen zenbait. Definizioari doakion intsektua aurki eta idatz.

xinaurria	eulia	tximeleta
ttirrita	mari burruntzia	erlea
leztafina (liztorra)	kattalin gorri	otia

*Intsektu beltza eta kantaria. Jauzika ibiltzen da eta gehienik pentzeetan aurkitzen da.* .....

*Intsektu langilea. Beltza izan daiteke edo gorria. Taldean bizi da.* .....

*Intsektu hegalduna. Kolore ederrak dauzka. Primaderan, aro ederrarekin kanpoan ikus daiteke.* .....

- Erranaldi guziak idatz itzazu *nuke, zenuke, luke...* formak erabiliz.

Sagar bat nahi dut.	<i>Sagar bat nahi nuke.</i>
Gatu ttipi bat nahi dut.	.....
Ilargira joan nahi du.	.....
Bizikleta gorri bat nahi duzu.	.....
Munduaren itzulia egin nahi duk/dun.	.....

- Hitz bikoteak egin itzazu *-ko* atzizkia baliatuz (*mendiko artzaina*) eta pasarte hau berridatz ezazu hutsuneak betez.

zeru – teilatu – lan – langile – izar – tenore – itsaso – etxe

Orain dugu ..... Bihar gauean .....ek dirdiratuko dute.  
Gure ..... berritu du zurginak. ....ek arrain anitz ekarri dute portura.